

# 130 urteko historia gorabeheratsua

Euskal anarkismoaren mugimendua aurrera atera zuten pertsonaiak eta eztabaidak aztertu ditu Juantxo Estebaranzek bere azken liburuan: *Breve historia del anarquismo vasco* (Txertoa 2011). Historia horren errebasoa egin dugu, egilearen beraren laguntzarekin.

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

XIX. MENDEAREN AZKEN HERENEAN, Frantziar proposaturiko zenbait praxi eta teoriak anarkismo gisa ezagutzen dugun joera politikoa sortu zuten. 1864an Langileen Nazioarteko Elkartean, Internazionallean, jaiotako talde sozialistek ez bezala, anarkistek politika formalaren baliabideak uxatzen zituzten. Ekintza zuzena eta greba orokorra hobesten zuten, matxinoen beraien protagonismoa nabarmenduz eta mota guztietako bitartekariak alboratuz. Industri Iraultzarekin batera jaiotako proletar goak pairatzen zituen gabeziak asetzea zuten helburu hasierako talde anarkistek, elkarri lagunduz. “Lehenengo anarkismo hura Internazionalena zen, elkarrenganako laguntza ardatz zuena. Urteak pasa ahala, artisauek osatutako talde haiek fabriketako langileria berria hartuko zuten beren baitan”, azaldu digu Juantxo Estebanz historiagileak.

Euskaldunak hasieratik aritu ziren bai Internazionallean, bai bere adarra zen Espainiako Eskualdeko Federazioan (1870). Dena dela, Zumarragan, Bilbon, Gasteizen, Tolosan, Irunen eta Iruñean ziren talde anarkistek ez zuten eragin handirik, esaterako, Bizkaiko meatzetan sortu zen langileriarengan: “Meatzariek ez zuten anarkistek zeukatzen antolaketa tradiziozko eta nagusi zen sozialisten eredu sindikalista”, dio Estebaranzek. Pariseko komuna gailenduta eta Internazionala legez kanpo utzita, XX. mendearen hasiera langile mugimenduaren joera berrien lekuko dugu. Sindikatu anarkista handien txanda heldu zen. Ekintza sindikalaren eraginpean, erakunde handi bat eraiki nahi zuten; asmo horrekin hurbildu ziren langileria berriarengana eta antolatuta ez zeuden joera guztietara. 1910ean Lanaren Konfede-

razio Nazionala (CNT) jaio zen, eta 1911ko lehenengo batzarrean Bilboko eta Barakaldoko taldeek hartu zuten parte.


## Euskal Herriko errealitate ezberdinak

Euskal Herrian, Sindikatu Bakarra izango zen anarkisten ezaugarri nagusia. Tokian tokiko federazioetan biltzen zituen ogibide guztietako beharginak. Gasteiz, Iruñea edota Tolosan indar handia zuen Sindikatu Bakarra, klase boteretsuen artean beldurra eta hauen errepresioa eraginez. “Euskal Herriko errealitatea ez zen bat eta bakarra. Bizkaian meatzetako langileria zegoen; Gipuzkoan eta Sakanan nagusi ziren transformazio industria txikiak eta Erriberan zein Errioxan jernalariak zeuden, baita komunalen jabetzaren kontra lan egiten zuten laguntza elkarrekin. Lurreko bakoitzaren egoera ekonomiko ezberdinak, jabetzaren egituraketak eta zatiketa administratiboek zail egiten dute euskal anarkismoaren gaineko ikuspegi bateratua ematea”, argitu digu historiagileak.

Bizitako diktadorek, errepresioak eta debekuek baldintzatuko zuten anarkismoaren ibilbidea. Bere baitan zituen joeren —sindikalista batetik, ekintza zuzenaren aldekoa bestetik— arteko tentsioa nabarmendu egin zen ahultasun momentuetan: “Hainbat porrot pairatuta, zalantzan jartzen zuten, behin eta berriro, anarkosindikalismoaren rola, batzuek nahiago baitzuten ekintza zuzena, zigor ekintzak”. Posibilismoa eta intrantsigentzia ditugu, beraz, anarkismoren alde bi, beti presente. Esan liteke, sinplifikatuz, egun CNT-AITn eta CGTn islatzen direla. Ez ziren haiek, baina, euskal anarkismoaren zeregin bakarrak: “1930eko hamarkadan, Primoren dikta-

**“Lurreko bakoitzaren egoera ekonomiko ezberdinak, jabetzaren egituraketak eta zatiketa administratiboek zail egiten dute euskal anarkismoaren ikuspegi bateratua ematea”**

JUANTXO ESTEBANZ, HISTORIAGILEA



Anarkismoak Euskal Herrian izan duen eragina aztertu du Juantxo Estebanz historiagileak *Breve historia del anarquismo vasco. Desde sus orígenes al siglo XXI* liburuan (Euskal anarkismoaren historia laburra. Jatorrietatik XXI. mendera).



dura bukatuta, kultura libreko esperientziak ezagutzen zituzten belaunaldi berriak hurbilduko dira CNTra. Anarkistentzat garrantzitsua izan da beti kulturaren ekarpena, kulturaren bidez gizakiaren egoera hobetzeko asmoa betidanik egon delako anarkismoaren oinarrietan. Arrazionalismoa, eskola libreak, argitalpenak, egunkariak, ateneoak ere anarkismoaren ezinbesteko osagaiak ditugu. Isaac Puente edo Chiapusotarrak dira tradizio horren erakusle”, azaldu du Estebanzek.

### Anarkismoaren indarra gurean

1970eko hamarkadan, CNTk izugarriko indarra zuen Katalunian, Valentzian edo Madrilen. Euskal Herrian, ordea, ezberdina zen egoera. Historiagilearen hitzetan, “debe-kuak amaitutakoan, CNTk gaitasun handia izan du beti erakundea berreraikitzeke. Franco hil ostean, baina, atzera begira egin zutela ematen du; hau da, garaia aldatu baziren ere, 1930eko hamarkadako eskarmentua pisu-suegia zen; mimetikoki, uxatu egin nahi zituzten diktadura eta trantsizio garaian lan munduan garaturiko kontziliazio tresnak,

enpresa batzordeak kasu. Horrez gain, 1968tik aurrera mugimendu asanblearioa hedatu zen Euskal Herrian eta hausturaren aldeko bloke bat agertzen hasi zen; haustura hori CNTk ordezkatzeko Espainiako Estatuko beste lekuetan. Sasoi hartan aberzale iraultzaileak barne hartzen zituen hausturaren aldeko mugimenduak politika formala saihesten zuen”.

*Breve historia del anarquismo vasco* liburuen egilearen arabera, CNTren baitako Askatasuna taldeak defendatzen zituen joera euskaltzaleek ez zuten behar besteko oihartzunik izan eta erakunde horretatik kanpo lan egitea erabaki zuen hainbatek: “Giza mugimenduetatik lan egiteari ekin zioten, eginda koari abizen anarkista ipini gabe. Egun, antzeko egoera daukagu: lehen aipatu dugun mugimendu hausturazaleak begi onez ikusten ditu bide instituzionalak eta badira oraindik ere batzarra ardatza dutenak. Orain, argiagok dira proposamenak eta eremu antiautoritarioa prest dago berriz hartzeko lehen beste mugimenduek ere jasotzen zituzten hausturazaleak”.



Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia